

KIRATSAREN USAIN EDERRA

Askotan ez da erraza izaten desberdintasunak ulertzea. Iruditzen zaigu guretzat polita denak polita izan behar duela denentzat. Sarritan gertatzen da, ordea, batentzat ederra dena itsusia izatea beste batentzat. Edo, ipuin honetan bezala, kiratsa dena batentzat usain gozoa izatea beste batentzat.



Begira bestela zer gertatu zitzaion Tajar izeneko gizon bati.

Tajarrek hiriko estoldetan lan egiten zuen. Estoldak hiriaren azpian egoten diren erreten edo kanal batzuk dira, eta handik joaten dira jendearen kakak, pixak eta ur zikinak. Pentsatuko duzue, noski, zer kirats egongo den han.

Baina Tajar egunero ibiltzen zen zikinkeria artean, eta ohituta zegoen kirats eta usain txarretara. Kaka usaina, adibidez, ez zitzaion txarra iruditzen inola ere.

Behin, perfume-denda bat zabaldu zuten bere auzoan. Tajar haren aurretik igaro zen egun batean, eta, hango usainak aditu zituelarik, arraroak iruditu zitzaizkion, bera ez baitzegoen ohituta halakoetara. Perfume-dendara sartu zen usain xeblebre haiek hobeto dastatzeko asmotan; sakon-sakon hartu zuen arnasa, baina berehala gorputza gogor-gogor jarri zitzaion eta ziplo erori zen lurrera, konortea galduta.

Dendariak larritu egin ziren, eta auzokoei hots egin zieten laguntza eske. Tajarren anaiari ere deitu zioten, eta hau berehala agertu zen, kaxatxo bat eskuetan zuela.

– Lasai, ez da ezer -esan zion patxadaz Tajarren anaiak perfume-dendan bildu zen jendeari.

Tajarren anaiak zabaldu zuen kutxatxo bat, eta, denen harridurarako, kaka mokoilo eder bat agertu zen han barruan. Anaiak sudurraren pare-parean jarri zion kaka mordoak Tajarri, eta hau berehala esnatu zen, esanez:

- Hau bai usain ederra!



Ipuin arabiarra (Mitxel Muruak moldatua).

IDATZIZKO ULERMENA

1.- Zeri esaten zaio “kiratsa”?

- A). Edozein usaini.
- B). Gustukoa den usainari.
- C). Desatsegina den usainari.
- D). Zorabio edo mareoari.

2.- Zer esan nahi du ondorengo esaldiak: “Iruditzen zaigu guretzat polita denak polita izan behar duela denentzat”?

- A). Pertsona guztiek gustu berdinak izaten ditugula.
- B). Uste dugula denoi gauza berdinak gustatzen zaizkigula.
- C). Norbait gure gustu berdinekoa bada, polita dela.
- D). Gustuei dagokienez bakoitzak bereak dituela.

3.- Non egiten zuen lan Tajarrek?

.....

4.- Nork kontatzen du istorioa?

.....

5.- Zer dira “Estoldak”?

- A). Kiratsa dagoen tokiak.
- B). Hirietan dauden kanalak.
- C). Hiri azpiko erreten edo kanalak.
- D). Kaka eta pixa egiten dugun tokiak.

6.- Aukeratu ezazu zuzena dena:

- A). Tajarri perfume usaina txarra iruditzen zitzaion.
- B). Tajarri perfume usaina arraroa egiten zitzaion.
- C). Tajarri perfumeak zorabioa sendatu zion.
- D). Tajarri kiratsa arraroa egiten zitzaion.

7.- Zeren ondorioz erori zen Tajar “ziplo” lurrera?

- A. Perfumeagatik zorabiatu zelako.
- B. Gorputza gogortu zitzaiolako.
- C. Zikinkeria artean lan egiten zuelako.
- D. Usain haiek gaixotzen zutelako.

8.- Nortzuei deitu zieten dendariek laguntza eske?

.....

9.-Zergatik esango du Tajarren anaiak “Lasai, ez da ezer”?

.....

10.- ...“kaka mokoilo eder bat agertu zen han barruan”... Non?

- A). Kaxaren barruan.
- B). Estoldaren barruan.
- C). Dendaren barruan.
- D). Tajarren anaiaren eskuetan.

11. Zergatik harritu ziren dendan zeudenak?

- A). Kaxan kaka zegoelako.
- B). Kaxaren tamaina oso handia zelako.
- C). Kakak usain goxoa zuelako.
- D). Tajar esnatu zelako.

12. “– Hau bai usain ederra!” esaten duenean, zeri buruz ari da Tajar?

- A). Dendako perfumeei buruz.
- B). Estoldetako usainari buruz.
- C). Kutxako kaka mokoiloari buruz.
- D). Laneko kiratsari buruz.

13. Nork berridatzi zuen ipuina?

.....

14. Zein da ipuinaren ideia nagusia?

.....